

# Irradiazioaren balioa

Berriro ere hospitalera joan naiz. Sasoiz heldu naiz oraingoan. Egia esan, Deustuko zubiaren beldur nintzen, Bilboko zirkulazioa sarrienik\* hantxe trabatzen baita. Zorionez, gaur ez dut holako problemarik ukan,\* eta hamar hamarretan nengoan hospitalean. Ene laguna hantxe zegoen nire zain.

—Kaixo, mutil. Gaur garaiz heldu haiz.

—Zer uste dun, bada? Beste eguneko belumendua\* ez zunan izan ene erruz,\* zirkulazioaren erruz baizik. Ikusi huen atzoko auto nahasmendua?

—Bai, ondo ere. Hain zuzen, hantxe niengoan ordurik txarreanean. Hura\* zuan izatekoa! Autobusean nentorrelarik, azkenean autobusetik jaitsi eta oinez joan behar izan nian etxera.

—Dena dela, utz dezagun atzokoa, eta goazen gaurkora. Lortu\* dun, hospitaleko tresneria erakusteko baimena?

—Bai. Zuzendariarekin berba egin diat, eta baietz esan diautak.

—Orduan, has gaitezen hik nahi dunanean.

Lehenik kobalto bonba ikustera goaz. Han prekauzio guztiak guti dira. Kobalto izpiak\* hartzeko, gela tipi bat dago. Gartzela bateko gela dirudi: bi metro zabal, zementuzko orma\* eta berunezko\* atea. Gelak ez du batera ornamendurik. Erdian etzanleku bat, eta haren inguruan mailu baten antzeko tresna zirkular bat. Ene ikusmina haundituz doa, eta galdeka hasten natzaio lagunari.

—Baina non dago bonba hori?

—Zer uste huen? Gerrako bonba bat aurkituko huela?

—Ez, ez ninan uste horrelakorik; baina gero, honenbeste segurtasun neurri ikusirik, dudatzen hasi naun.

—Segurtasun neurriak, izpiak kontrolatzeko dituk.

—Nola funtzionatzen du bonbak?

—Hara! Hor erdian, gaixoa etzaten duk. Tumorea ondo definitu ondoren, haren erdiunea tresna zirkular horren zentroan ezartzen duk. Posizio horretan dagoelarik, tresna zirkularra biraka hasten duk astiro astiro, izpiak handitsuaren\* erdi erdira botatzeko. Era honetan, irradiazioak erre egiten ditik zelula gaixoak, alboko eunak\* kasik ukitu\* gabe.

—Hori egin ahal izateko, pertsonaren bat egon behariko dun gelan. Ez da?

—Ez. Den dena telebistaren bidez kontrolatzen duk.

Handik beste gela batera goaz. Gela horretan tiroidearen edo zintzur zakatzaren gorabeherak aztertzen dira, samako\* gaixotasunak kontrolatzeko.

—Hemen tiroidearen argazkiak ateratzen dituk.

—Nola atera daitezke argazkiok? Alboko eunak kendu ezik, ez dinat ulertzen nola egin daitekeen hori.

—Begira! Tiroideak gorputzeko iodoa bereganatzen dik. Guk, orduan, iodo erradioaktiboa ematen zioagu gaixoari, eta handik gutira iodo hori tiroidera dioak. Iodoak, irradiatzaile denez, izpiak botatzen ditik, eta guk izpien argazkia ateratzen diagu.

—Harriturik uzten naun, neska. Irradiazioak, gerra denboran jendea hiltzeko baino ez zuela balio uste nian; baina bizia emateko ere balio duela ikusten dinat orain.

Bi ordu eman genituen hospitalean. Ni neu, zer esanik ez, aho zabalik egon nintzen denbora guztian. Beste hainbat gauza ere ikusi nuen; baina bi hauk\* azaldu dauzkizuet, interesgarri izanen direlakoan.

J. R. ETXEBARRIA

## TOKETAZKO ADITZ FORMAK

diagu, dugu  
diat, dut  
diautak, daut, daust, dit  
dik, du  
dioak, doa  
ditik, ditu  
dituk, dira  
duk, da  
nian, nuen, neban  
niengoan, nengoan  
zioagu, diogu, dautsagu  
zuan, zen, zan

## NOKETAZKO ADITZ FORMAK

dinat, dut  
naun, naiz  
ninan, nuen, neban  
zunan, zen, zan

## OSTERANTZEKO ADITZ FORMAK

daitezke, daitezke  
dauzkizuet, dautzuedaz, dizkizuet  
dezagun, daigun  
genituen, genduzan  
natzaio, natxako